

EGUBERRIKO X. XAKE TXAPELKETA.

(2021eko urtarrilaren 2tik 9ra).

Oinarriak

Datak:

2022ko urtarrilaren 2tik 9ra.

Partiden hasierako ordua:

16:30ean izanen da. Torneoko zuzendariak erabakiko du txanden kopurua, parte hartzaileen arabera. Urtarrilaren 5ean jokatu behar izanez gero, goizean jokatuko da.

Tokia:

Plazara Komunitatearen Gune soziokulturala (Iruñeko kale Nagusia, 31).

Izen ematea:

Epea 2021eko abenduaren 29ko 13:00etan amaituko da (asteazkena da).

Nafarroako Xake Federakundean egin behar da posta elektroniko honetan: "info@fnajedrez.com".

2019ko abenduaren 31n ranking-a argitaratuko da, 15:00etan.

FEDAn afiliatutako edonork joka dezake txapelketa hau.

Prezioak:

18 urtez gorakoentzat (2004ko urtarrilaren 1a baino lehen jaiotakoentzat): 20 euro.

18, 16, 14 eta 12 urtez azpikoentzat (2012ko urtarrilaren 1a baino lehen jaiotakoentzat): 15 euro.

10 eta 8 urtez azpikoentzat (2012ean edo ondoren jaiotakoentzat): 10 euro.

Izena emateko epea amaitu baino lehen ordaindu beharra dago. Bestela, jokalaria kanporatua izan daiteke.

Ordaindu izanaren agiria Federaziora bidaltzea eskertzekoa izanen litzateke.

Epez kanpo ez da jokalaririk onartuko.

Nafarroatik kanpo federatutako jokalariek parte har dezakete.

Jakinarazpenak:

Nafarroako Xake Federakundearen webgunearen bidez (<http://www.fnajedrez.com>) egingen dira. Baita posta elektronikoz ere. Norbaitek posta elektronikorik ez balu, NXFren egoitzan paper bidez emanen litzaioke. NXFren webgunearen bidez informazioa emanda, jokalaria jakinaren gainean geratzen direla ulertuko da. Hala ere, modu pertsonalean ukitutako jokalaria telefono bidez adieraziko zaio, ez ohiko dokumentazioa jaso dezan.

Joko sistema:

Suitzarra, hainbat txandatan.

Parekaketa erreklamazioa onartuko da bigarren aldiz jokari berberaren aurka jokatu behar bada, hiru aldiz jarraian kolore berberarekin jokatu behar bada (azkeneko txanda izan ezik) eta hiru aldiz gehiago kolore batekin jokatu behar bada (azkeneko txanda izan ezik).

90 minutu izanen dira partida osorako, gehi 30 segundo jokaldi bakoitzeko.

Ranking-a:

- FIDE eloaren arabera (FEDA eloa erabiliko da, FIDE elorik ez dutenekin).
- Titulua.
- FEDA eloa.
- Orden alfabetikoa.

Parekaketa, emaitzak eta sailkapenak NXFren bulegoan eta webgunean modu publikoan erakutsiko dira.

Jokalaria kanporatzea:

Jokari bat ez bada partidara agertzen eta ez badu idatziz behar bezala arazoitzen, kanporatua izanen da eta lizentzia galduko du. Ezin izanen da NXFko ordezkaria izan ez agertzek urte bateko epean, jokatu ez duela garaiz adierazi ez badu (aurkariari jakinarazteko).

Arrazoi modu elektronikoan ere adieraz daiteke. Indar handiko arrazoiak soilik onartuko dira: Parekaketa egin aurretik ezagutzen ez ziren laneko gorabeherak, bere osasun gorabeherak edo senideeenak, istripuak, garantzizko inguruabar pertsonalak edo familiarenak eta abar. Balorazio berezia egingen da ez jokatzearen arrazoiak partida jokatu aurretik ematen bada eta aurkaria jakinaren gainean jartzeko denbora badago.

30 minutu berandu iritsiz gero partida galduko da eta jokalaria ez agertutzat hartuko da.

Atsedanak:

Lehenengo lau txandetan atsedan bat har daiteke, puntu erdiaren truke (betiere azkeneko bi txandetan sartuta ez badaude). Atsedena, aurreko txanda baino lehen idatziz NXF-ri edo epaile taldeari eskatu behar zaio.

Ezberdinketa sistemak, orden honetan:

Jokarien arteko emaitza.

Bucholz, emaitzarik txarrena kenduta (ez jokatutako partidak berdinketatzat hartuko dira balizko aurkari baten aurrean).

Bucholz osoa (ez jokatutako partidak berdinketatzat hartuko dira balizko aurkari baten aurrean).

Sonnenborn-Berger (ez jokatutako partidak berdinketatzat hartuko dira balizko aurkari baten aurrean).

Sailkapenerako garrantzia duenean: Bi partida azkar jokatuta, kolorea aldatuta. Berdinketa mantentzen bada, beste partida bat jokatuko da (5 minutuz zuriek eta 4 minutuz beltzez, berdinketa beltzen alde izanik).

Sailkapenerako garrantzirik ez duenean: Zozketa.

Erreklamazioak:

Torneoko zuzendariak antolaketa arloko erantzukizuna hartuko du eta ardura teknikoa ere bai.

Araudiaren aplikazioaren inguruko erreklamazioak hasiera batean Torneoko zuzendariak ebatziko ditu.

Diziplinazko ondorioak izan ditzaketen arazoak Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordera bideratuko ditu.

Bestelako arazoen aurrean epaileek hartutako erabakien aurkako erreklamazioak NXFren Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordearen aurrean aurkez daitezke, Txapelketen Araudi Orokorrean adierazitako epean eta moduan (14.8tik 14.12ra artikulatuak).

Sariak:

Lehenengo sailkatua: Eguberriko Torneoko txapeldun titulua.

Trofeoa jasoko dute hauek: Lehenengo sailkatuak, lehenengo beteranoak, lehenengo emakumeak, 18 urtez azpiko lehenengoak eta 12 urtez azpiko lehenengoak.

Bestelakoak:

Joko aretoan ezin izanen da analisirik egin.

Partidak jokatzen ari diren bitartean ateratzeko, epaileei baimena eskatzea gomendatzen da.

Parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Antolatzailea:

Nafarroako Xake Federakundea.

Torneoko zuzendaria:

Joaquin Perez-Seoane Garrido.

**2020-21eko DENBORALDIAN INTERNETEN BIDEZ
JOKATUTAKOAREN AZKENEKO SAILKAPENA, SEI
TXANDAREN ONDOREN**

- 1) **Iker Andres Iñiguez (1.616) – 5'5 puntu.**
- 2) **Martin Pascual Garcia (1.957) – 5 puntu.**
- 3) **Adrian Oroz Carrasco (1.643) – 5 puntu.**
- 4) **Gonzalo Martino Girones (1.476) – 4'5 puntu.**
- 5) Haymar Leone Amigot (1.868) – 4'5 puntu.
- 6) **Pedro Nieto Gomez (1.269) – 4 puntu.**
- 7) Ekain Galarza Arza (1.411) – 4 puntu.
- 8) Oier Sarasketa Irastortza (1.262) – 4 puntu.
- 9) Miguel Adrian Abad (1.347) – 4 puntu.
- 10) Gael Morras (elarik gabe) – 4 puntu.
- 11) Aymar Yeregui – 3'5 puntu.
- 12) David Etayo – 3'5 puntu.
- 13) Mario Antoñanzas – 3'5 puntu.
- 14) Luca Salas – 3'5 puntu.
- 15) Raul Burriel Ureta – 3'5 puntu.
- 16) Igor Usunariz – 3 puntu.
- 17) Asier Etayo – 3 puntu.
- 18) Asier Garciandia – 3 puntu.
- 19) Jon Castillo – 3 puntu.
- 20) Gorka Gonzalez – 3 puntu.
- 21) Daniel Vicente Merino – 3 puntu.
- 22) Diego Morras – 3 puntu.
- 23) Danny Camacho – 2'5 puntu.
- 24) Oier Serrano – 2'5 puntu.
- 25) Mikel Los Arcos – 2'5 puntu.
- 26) Yago Elizalde – 2'5 puntu.
- 27) Anuar Egozcue Sghir – 2'5 puntu.
- 28) Marcos Berlanga – 2'5 puntu.
- 29) Unax Vizcay – 2'5 puntu.
- 30) Abel Otazu – 2 puntu.
- 31) Asier Nieto – 2 puntu.
- 32) Marcos Martinez – 2 puntu.
- 33) **Amaya Alfaro – 2 puntu.**
- 34) Adrian Aldave – 1'5 puntu.
- 35) Adrian De Castro – 1'5 puntu.
- 36) Angel Perez – 1'5 puntu.
- 37) Fernando Lahoz – 1'5 puntu.
- 38) Asier Lamelas – 1'5 puntu.
- 39) Antonio Lamolda – Puntu bat.
- 40) Xavier Goñi – Puntu bat.
- 41) Noe Salinas – Puntu bat.
- 42) Daniel Guillen – 0 puntu.
- 43) Mikel Santos – 0 puntu.

SARIAK

Trofeoa jaso zutenak: **Iker Andres Iñiguez** txapelduna, **Amaya Alfaro** lehenengo emakumea, **Pedro Nieto Gomez** lehenengo beteranoa, **Martin Pascual Garcia** 18 urtez azpiko lehenengoa eta **Gonzalo Martino Girones** 12 urtez azpiko lehenengoa.

TXAPELKETAREN HISTORIA

2012an, I. edizioan: **Miguel Navarro Cia** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Pablo Urriza Iricibar** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Mikel Ortega Lopez** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2013an, II. edizioan: **Ivan Tetimov** (Bulgaria, Iruñeko Donibane Kirol Elkartekoa), txapeldun; **Mikel Garjon Modrego** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Jose Zaratiegui Cardesa** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2014an, III. edizioan: **Miguel Argaya Urdaniz** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Jose Miguel Ugalde Ezkurra** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Pablo Urriza Iricibar** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2015ean, IV. edizioan: **Jesus Luis Aguinaga Ruiz** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Rafael Ruiz Escobar** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Javier Cinza Lopez** (Galizia, Nafarroan bizi dena), hirugarren.

2016an, V. edizioan: **Javier Cinza Lopez** (Galizia, Nafarroan bizi dena), txapeldun; **Adrian Aldave Aguado** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Javier Lizuain Toni** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2017an, VI. edizioan: **Javier Cinza Lopez** (Galizia, Nafarroan bizi dena), txapeldun; **Javier Lizuain Toni** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Martin Pascual Garcia** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2018an, VII. edizioan: **Pablo Urriza Iricibar** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Javier Cinza Lopez** (Galizia, Nafarroan bizi dena), bigarren; **Martin Pascual Garcia** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2019an, VIII. edizioan: **Javier Lizuain Toni** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Martin Pascual Garcia** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Haymar Leone Amigot** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2020an, IX. edizioan: **Iker Andres Iñiguez** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Martin Pascual Garcia** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Adrian Oroz Carrasco** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

PALMARESA

- 1) **Javier Cinza Lopez (Galizia, Nafarroan bizi dena) – 2 titulu.**
- 2) **Jesus Luis Aguinaga Ruiz (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**
- 3) **Iker Andres Iñiguez (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**
- 4) **Miguel Argaya Urdaniz (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**
- 5) **Javier Lizuain Toni (Nafarroa, Euskal Herria) – titulu bat.**
- 6) **Miguel Navarro Cia (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**
- 7) **Ivan Tetimov (Bulgaria, Nafarroan bizi izandakoa) – Titulu bat.**
- 8) **Pablo Urriza Iricibar (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**

2021-12-17.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.